

Garapenerako Heziketan

Prestatzeko Lantegiak

ERRONKAK
EHUNDUZ



Garapenerako Hezkuntzak Euskadin zuen egoera hobetzen laguntzeko prozesu bati ekin genion 2008. urtean. Prozesu horren lehen gauzapena izan zen Euskadiko garapenerako GKE-ek Garapenerako Hezkuntzaren alorrean duten egoerari buruzko diagnostiko parte-hartzaile bat egitea. Diagnostiko hori egiteko, 4 ardatz hautatu ziren, informazioa bilatu eta kontrastatzeko gai erreferentziazkoak izan zitezten. Hauek izan ziren lau ardatzak: organizazioen egitura eta kultura, metodologia, produktuak eta dimentsio eta eragin politikoa. Diagnostiko horretan, garapenerako 33 GKEk parte hartu zuten, eta beren egoerari buruzko datuak eman zituzten; horrez gain, 4 erakunde publikok kontrastatu egin zituzten garapenerako GKE-ekin egindako diagnostikoetan adierazi ziren edukiak, haiekiko dituzten harremanekin zerikusia duten heinean.

Planteatzen ari garen prestakuntza-lantegi hauen helburua da hasieran finkatu genuen helburu hori lortzeko bidea egiten jarraitzea. Prestakuntza horren abiapuntua esperientzia izango da.

Alde batetik, 4 organizazioen esperientzia baliatuko da, urtarriletik aritu baitira sistematizatzen, haien jarduera orokorraren baitan, diagnostiko egiteko hautatu ziren lau ardatz edo gaiak, eta denbora horretan guztian ikasi dutena konpartituko dute prestakuntza-lantegietan.

Bestalde, lantegietan parte hartuko duten organizazioen berezko esperientzia baliatuko da, ardatz edo gai horietan duten eskarmentua azaldu beharko baitute Ikasitakoa Berreskuratzeko Fitxen bitartez. Organizazio bakoitzak egingo ditu fitxa horiek, prestakuntza-lantegietan parte hartu baino lehenago.

Lantegi hauek aukera bikaina dira elkarrekin prestakuntza eskuratzeko, gure esperientzia edo eskarmentutik abiatuta. Kontuan izango dira, halaber, garapenerako GKE-ok ditugun indargu-neak eta ahuleziak, 33 organizazioen eta 4 erakunde publikoren parte hartzea izan duen diagnostikoren bidez identifikatu direnak. Prestakuntzarako espazioak izango dira, eta beren azken helburua organizazioen Garapenerako Hezkuntza indartzea izango da.



EGITARAU KONPARTITUA

- 9:00** Egunari ekingo zaio. Eguna-
ren aurkezpena egingo da
- 9:15** Garapenerako Gobernuz
Kanpoko Erakunde bakoit-
zaren esperientziak aur-
keztuko dira (Ikasitakoa
Berreskuratzeko Fitxen
laburpena egingo da)
- 9:45** Esperientziak sistemati-
zatuta aurkeztuko dira,
konklusioak, ikasitako gau-
zak eta aholkuak azalduz
- 10:45** Galderak egiteko aukera
emango da
- 11:00** Atsedendia (kafea)
- 11:30** Taldetan lan egingo da
zenbait gida-elementuren
inguruan, Garapenerako
Hezkuntza indartzeko
- 13:00** Osoko bilkura bat egingo
da gida-elementuak eta
giltzarriak lantzeko
- 14:00** Amaiera emango zaio egu-
nari

DATAK

2011ko urriak 14.

PRODUKTUAK

Bere esperientzia sistematizatua konpartituko duen organizazioa:
EUSKADI CUBA

2011ko urriak 28.

ORGANIZAZIOAREN EGITURA ETA KULTURA

Bere esperientzia sistematizatua konpartituko duen organizazioa:
SETEM HEGO HAIZEA

2011ko azaroak 11.

ERAGIN POLITIKOA

Bere esperientzia sistematizatua konpartituko duen organizazioa:
MUGARIK GABEKO INGENIARITZA

2011ko azaroak 24.

METODOLOGIAK ETA SORMENA

Bere esperientzia sistematizatua konpartituko duen organizazioa:
EUSKADIKO ELKARBIDEA

Prestakuntzaren dinamizazio orokorra:
Iniciativas de Cooperación y Desarrollo



Norentzat: Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeetako eta Erakunde Publikoetako teknikarientzat. Prestakuntza hauetan parte hartzeko, generoari eta garapenari buruzko jakintzak izan behar dira.

Izen-ematea: 2011ko irailaren 15a bitartean. Adierazi beharrekoak dira izen-abizenak, zer GGKEen edo erakunde publikoan lan egiten den, telefono-zenbakia eta harremanetarako e-posta.

Lantegia hautatzeko aukera emango da; beraz, ez da derrigorrezkoa izango 4 lantegietan izena ematea. Norbaitek beharrezkoa balu, Lankidetzaren eta Garapenerako Ekimenetarako aholkularitzaren laguntza jaso dezake Ikasitakoa Berreskuratzeko Fitxak betetzeko.

Kontaktua

Almudena Martín

Telefono-zenbakia: 94 4 75 49 07

E-posta: almudenamartin@circulosolidario.org

Lekua

Bolunta, Zabalbide kalea 1, Bilbo

Plaza mugatuak!

ANTOLATZAILEA



circulosolidarioeuskadi
euskadikoelkarbidea

LAGUNTZAILEA



INICIATIVAS DE
COOPERACIÓN
Y DESARROLLO

FINANTZALAILEAK



GARAPENERAKO
LANBIDEZTAREN
EUSKARRI AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

